



ERABAKIA, 2011ko ABENDUAREN 22koa, UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUARENA, ECTS EUROPAR KREDITUEN BARRUKO IRAKASKUNTZA MOTEI ETA TALDEEN TAMAINARI BURUZKO ARAUTEGIA EGUNERATZEKO DENA

2006ko urriaren 24ko erabakiaren bidez (EHAA 2007ko azaroaren 27), irakaskuntza-motei eta taldeen tamainari buruzko araudia finkatu zen Europako ECTS kredituak aintzat harturik, ikasketa berriak ezarri aurreko ikasketa-planen testuinguruan.

Araudi honek aurrez aurreko bederatzi irakaskuntza-mota bereizten ditu, helburuen arabera: eskola magistralak (EM), mintegiak (M), ikasgelako praktikak (IP), laborategiko praktikak (LP), ordenagailuko praktikak (OP), tailer ez-industrialak (TA), tailer industrialak (TAI), praktika klinikoak (PKL) eta landa-praktikak eta kirol-praktikak (LP eta KP). Horrez gainera, mota bakoitzeko taldeen tamainak ere finkatzen ditu (batez besteko eta gehieneko kopuruak).

Ikasketa berrien ezarpen-prozesuak, azken bi ikasturteetan, graduako irakaskuntzan bereziki, agerian utzi du honako hau: hots, beharrezkoa dela taldeen tamainak bateratzea, ikastegiaren antolakuntza erraztu eta ikasleen beharretara egokitutako eskola-egutegi egokiak egiteko.

Adierazitakoa guztia kontuan hartuta, Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak aldeko iritzia azalduta 2011ko abenduaren 16ko bileran, eta Akademia Antolakuntzako errektoreordeak hala proposatuta, Gobernu Kontseiluak honakoa:

ERABAKI DU:

Bakarra.- ECTS EUROPAR KREDITUEN BARRUKO IRAKASKUNTZA MOTEI ETA TALDEEN TAMAINARI BURUZKO ARAUTEGIA onartzea, eranskinean agertzen den moduan.

Leioa, 2011ko abenduaren 22a

ERREKTOR/EL RECTOR

Iñaki Goirizela Ordeorika

ACUERDO DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE LA UPV/EHU, EN SU SESIÓN DE 22 DE DICIEMBRE DE 2011, POR EL QUE SE ACTUALIZA LA NORMATIVA SOBRE TIPOS DE DOCENCIA Y DIMENSIONAMIENTO DE GRUPOS EN EL MARCO DE CRÉDITOS EUROPEOS ECTS

La resolución de 24 de octubre de 2006 (BOPV de 27 de Noviembre de 2007) establece la normativa sobre tipos de docencia y dimensionamiento de grupos en el marco de créditos europeos ECTS, en un marco de planes de estudios anteriores a la implantación de las nuevas enseñanzas.

Esta normativa distingue hasta nueve tipologías docentes presenciales en función de sus objetivos: clases magistrales (M), seminarios (S), prácticas de aula (PA), prácticas de laboratorio (PL), prácticas de ordenador (PO), talleres no industriales (TA), talleres industriales (TAI), prácticas clínicas (PCL) y prácticas de campo y deportivas (PCAyD). Así mismo se establecen los tamaños de grupos medios y máximos asociados a cada tipología.

La gestión de la implantación de las nuevas enseñanzas, de forma particular en las enseñanzas grado, durante los dos últimos años académicos ha puesto de manifiesto la necesidad de unificar los tamaños de grupos para facilitar la gestión organizativa de los centros y la elaboración de calendarios escolares adecuados a las necesidades docentes del alumnado.

Por cuanto antecede, previo informe favorable de la Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado en su sesión de 16 de diciembre de 2011, a propuesta de la Vicerrectora de Ordenación Académica, el Consejo de Gobierno

ACUERDA

Único.- Aprobar la NORMATIVA SOBRE TIPOS DE DOCENCIA Y DIMENSIONAMIENTO DE GRUPOS EN EL MARCO DE CRÉDITOS EUROPEOS ECTS, en los términos que figuran en el anexo.

Leioa, 22 de diciembre de 2011

IEZKAR NAGUSIA/LA SECRETARIA GENERAL

Ferreira García



EUROPAKO ECTS KREDITUAK AINTZAT HARTZEN DITUEN IRAKASKUNTZA MOTEI ETA TALDEEN TAMAINARI BURUZKO ARAUDIA

NORMATIVA SOBRE TIPOS DE DOCENCIA Y DIMENSIONAMIENTO DE GRUPOS EN EL MARCO DE CRÉDITOS EUROPEOS ECTS

1. artikulua. Irakaskuntza-motak

Aurrez aurreko bederatzi irakaskuntza-mota bereizi eta mota bakoitzari buruzko azalpenak ematen dira.

1. Eskola magistralak, eskola teorikoak

(EM): jakintza teorikoak ikasle-talde handiei transmititzeko erabili ohi den irakaskuntza-mota da. Irakasleak irakasgaiaren ikuspegi orokorra azaltzen du; ildo nagusiak bereizi, irakasgaiaren atal edo zatiak aurkeztu (gaiak edo blokeak), gaiak erlazionatu, eta gai bakoitzaren alderdi garrantzitsuenak azpimarratzen ditu. Irakaskuntza-mota honek ez du bermatzen ikasleek trebetasun garrantzitsuak eskuratzea, baina erabili da (ez bakarrik, ordea) teoria irakasteko.

2. Mintegiak (M): irakaslearen eta ikasle-talde txiki baten arteko interakzio eraginkorra ahalbidetzen duen irakaskuntza-mota da. Lanak aurkezteko, kasuak analizatzeko, hipotesiak ebazteko, problemak ebazteko eta gai teoriko sinpleak azaltzeko erabiltzen dira. Ikasgelako praktikan ez bezala, irakaslea ez da protagonista, eta haren eginkizun bakarra hau da: entzutea, orientatzea, argibideak ematea, baloratzea, gauzak nola egiten diren erakustea eta balioestea. Funtsezko irakaskuntza-mota da ikasleek etengabeko ebaluazioa egin eta autoirakaskuntzak zer errendimendu duen jakiteko. Irakaskuntza-mota hau gabe, ez dago autoprestakuntzara bideratutako irakaskuntza-metodologiarik. Ikasleek eskuratu beharreko trebetasun

Artículo 1. Tipos de docencia.

Se establecen los siguientes tipos de docencia presencial, acompañados de definiciones orientativas.

1. Clases magistrales, clases teóricas

(M): Con cualquiera de estos términos nos referimos a la modalidad que se utiliza habitualmente para transmitir conocimientos teóricos a grupos numerosos de estudiantes. El profesor o la profesora expone visiones panorámicas de la asignatura; resalta sus líneas maestras; encuadra las partes de que se compone – los temas o bloques- en el todo de la asignatura; relaciona los diferentes temas; y se centra en los aspectos principales de estos. La docencia basada principalmente en este tipo de docencia no garantiza la adquisición por parte del alumnado de habilidades sumamente importantes, pero es la más usada – aunque no la única- para impartir la docencia de la teoría.

2. Seminarios (S): son un tipo de docencia que facilita la interacción fluida entre un profesor o profesora y un reducido grupo de estudiantes. Se emplean de forma habitual para presentar trabajos, analizar casos, resolver supuestos, resolver problemas, exponer un tema teórico sencillo. A diferencia de lo que sucede en las Prácticas de Aula, el profesor o la profesora no es protagonista, limitándose a escuchar, atender, orientar, aclarar, valorar, mostrar cómo se hacen las cosas, evaluar. Es un tipo de docencia esencial para facilitar la evaluación continua del alumnado y conocer el rendimiento del autoaprendizaje. Sin ella no hay metodología docente orientada a la autoformación. Algunas de las más preciadas habilidades que debe



garrantzitsuenetako batzuk (lan bat aurkezten eta azaltzen jakitea, laburpenak egiten jakitea, bat-batean analisi bat egiten jakitea,...) mintegien bidez lantzen dira.

3. Ikasgelako praktikak (IP): irakaskuntza-mota honetan, irakasleak azalpen edo ebazpen praktikoa egiten du, helburu argigarriekin, ikasle-talde ez oso handi baten aurrean. Irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina sortzen den arren, eskolaren ardura nagusia ez da ikasleena, irakaslearena baizik. Eskola magistraletako teoriaren alderdi praktikoa osatzen dituen irakaskuntza-mota da, egokiena mintegi bateko taldeak koordinatzeko, talde horien artean asteko lanak banatzeko, eta talde horiei jarraibide batzuk emateko lanak egiteko moduari buruz. Ikasgelako saio praktikoa, bestetik, mintegietan aurkeztutako lan onenen emaitza nagusiak aurkezten dira.

4. Laborategiko praktikak (LP): ikasle-talde ez oso handi batek (ikasle bakoitza bere lekuan) saiakuntzak, esperimenduak, neurketak... egiten ditu, unibertsitatearen azpiegitura (laborategiak), lan-ekipoak eta material suntsigarriak erabiliz; irakasle batek zaintzen ditu, eta zalantzak argitzen dizkie. Laborategiko praktikak ondo programatuta egon behar dute, eta haien jarraipen-lana egin daiteke ikasgelan. Oso erabiliak dira Zientzia eta Teknologia tituluetan. Zentzu zabalean, Laborategiko Praktikak deitzen zaie talde ez oso handitan egin eta azpiegitura eta ikasleentzako ekipamendu indibiduala erabiltzen dituzten praktika guztiak (hizkuntzak ikasteko erabiltzen direnei, adibidez). Azken horiek Filologietan erabiltzen dira.

5. Ordenagailuko praktikak (OP): ikasle-

desarrollar el alumnado (saber presentar y exponer un trabajo, saber resumir, saber sintetizar un análisis, saber trabajar en grupo...) se consiguen precisamente gracias a los Seminarios.

3. Prácticas de Aula (PA): constituyen un tipo de docencia en las que un profesor o profesora hace una exposición o resolución práctica, con fines ilustrativos, ante un grupo de estudiantes no muy amplio. Aunque interacciona con estudiantes, no son éstos los que llevan el peso de la clase, sino el profesor o profesora. Es un tipo de docencia que complementa los aspectos prácticos de la teoría expuesta en las clases magistrales y es idónea para coordinar los varios grupos de Seminario, repartir entre ellos las diferentes tareas semanales y transmitirles pautas comunes sobre la forma de hacer los trabajos. También se exponen en las sesiones de Prácticas de Aula los resultados principales de los trabajos más sobresalientes presentados en los Seminarios.

4. Prácticas de Laboratorio (PL): son un tipo de docencia en la que un grupo no numeroso de estudiantes, cada uno ocupando su plaza, realiza ensayos, experimenta, practica mediciones, etc., usando infraestructura (los laboratorios), equipos de trabajo y consumibles pertenecientes a la universidad, en presencia de profesorado universitario capaz de resolver posibles dudas y de realizar funciones de vigilancia. Las Prácticas de Laboratorio siempre están perfectamente programadas, dando lugar a posibles desarrollos posteriores en el aula. Son habituales en las titulaciones de Ciencias y Tecnológicas. Por extensión, cualquier tipo de práctica que se realice en grupos no numerosos de estudiantes y que requiera una infraestructura y equipamiento individuales para estudiantes (como las que se usan para el estudio de los idiomas, por ejemplo) también se denominan Prácticas de Laboratorio. Estas últimas se utilizan en las Filologías.



- talde batek (ikasle bakoitza bere lekuan) jarduera praktiko bat egiten du ordenagailuarekin informatika-gelan, irakasle baten gidaritzapean. Era honetako praktketan, informatikako softwarea da tresna nagusi eta ia bakarra; ordenagailua euskarria besterik ez da.
- 5. Prácticas de Ordenador (PO):** son sesiones docentes en las que, en un aula informática, un grupo de estudiantes, bajo la dirección de un profesor o profesora, realiza una actividad práctica programada que requiere el uso del ordenador, cada uno ocupando su plaza. El software informático constituye en este tipo de práctica la herramienta de trabajo fundamental, y casi exclusiva, del alumnado; el ordenador no es más que el portaherramientas.
- 6. Tailer ez-industrialak (TA):** talde bateko ikasle bakoitzak lan bat egiten du, eta irakasle bat arduratzen da ikasleei zalantzak barkaka argitzeaz. Kasu honetan, irakasleak ez du ikasgelako praktketan duen protagonismorik, eta ikasleek ez dute lana aurkeztu behar guztiz amaituta egon arte (antzera gertatzen da mintegietan). Normalean, ondoz ondoko saio bat baino gehiago behar izaten da tailerreko lan bat egiteko, eta ikastaldi osoa ere, zenbaitetan. Tailerretan, ikasle-taldeak praktika indibidualak egiten dituzte irakasleen gidaritzapean. Adibidez, Arte Eder eta Arkitekturako tituluetan, ohikoak dira marrazki-, pintura-, zeramika- eta proiektu-tailerrak. Tailerretako taldeak tamaina erdikoak izan ohi dira, ikasleek bakarka lan egiten dutelako eta irakasleak ondoan egon behar duelako, baten batek zalantzaren bat argitu nahi izanez gero. Tailerreko saioak irakaslearen azalpen labur edo bateratze-lan batekin hasten dira sarri.
- 6. Talleres (No Industriales) (TA):** constituyen un tipo de docencia en la que cada estudiante del grupo trabaja en una tarea diferente y de modo personal en presencia de profesorado que resuelve particularmente al alumnado que lo demande la duda o dificultad que le plantee. El profesor o profesora carece del protagonismo que tiene en las Prácticas de Aula y los estudiantes no tienen que dar cuenta de una tarea que deben llevar concluida y bien resuelta (como sucede en los Seminarios). Normalmente, los trabajos que realiza el alumnado en los Talleres se prolongan a lo largo de sesiones sucesivas, que en algunos casos puede ser la totalidad del periodo académico. Podríamos decir que los Talleres consisten en sesiones en las que grupos de estudiantes ejecutan prácticas individuales tuteladas. Son clásicos los Talleres de dibujo, de pintura, de cerámica, de proyectos, propios de las titulaciones de Bellas Artes y de Arquitectura. Como, por una parte, el alumnado llevan a cabo sus trabajos individualmente y, por otra, el profesor o profesora debe estar accesible a todos ellos para resolverles las dudas que singularmente le planteen, el tamaño habitual de los grupos de Taller suele ser intermedio. No es infrecuente que una sesión docente de Taller comience con una breve explicación o puesta en común a cargo del profesor o profesora.
- 7. Tailer industrialak (TAI):** ikasle-talde ez oso handi batek makinak, aparatu edo instalazio industrialak erabiltzen ikasi eta lan jakin batzuk egiten ditu. Arriskutsuak izan daitezkeen makinak edo tresnak
- 7. Talleres Industriales (TAI):** son sesiones docentes en las que un grupo no muy amplio de estudiantes entra en contacto con maquinaria, aparatos o



erabiltzen diren tailerretan oso talde txikiak aritzen dira.

8. Praktika klinikoak (PKL): egiazko gaixoekin egiten diren saio hauen helburua ikasleei erakustea da, eta oso talde txikiak antolatzen dira beti. Ohikoak eta ezinbestekoak dira Osasun Zientzien arloko tituluetan.

9. Landa-praktikak eta Kirol-praktikak (LP eta KP): tokian bertan egiten den irakaskuntza-mota da; hots, aztergai den gertakaria, fenomeno edo errealitatea gertatzen den lekuan bertan.

2. artikulua. Taldeen tamaina

1. Ondoko laukiak taldeen tamainak finkatzen ditu, irakaskuntza-moten arabera. Talde-kopuru maximoak ezartzeko, irakaskuntza-mota bakoitzaren eta hizkuntzaren arabera, aurreko ikasturtean matrikulatutako ikasleen datua erabiltzen da derrigorrezko irakasgaietan.

instalaciones industriales: comprenden su funcionamiento; aprenden a manejarlos; realizan tareas y mediciones;... Los Talleres Industriales en los que se utilizan maquinaria o aparatos que entrañan riesgo solo pueden realizarse en grupos relativamente reducidos.

8. Prácticas Clínicas (PCL): son sesiones docentes que tiene siempre por objeto enseñar al alumnado en presencia de pacientes reales, por lo que deben realizarse en muy pequeños grupos. Son habituales e imprescindibles en las titulaciones pertenecientes al campo de las Ciencias de la Salud.

9. Prácticas de Campo y Deportivas (PCAyD): son un tipo de docencia que tiene por objeto llevar a cabo la enseñanza sobre el terreno, es decir, en el sitio mismo donde se produce el hecho, el fenómeno o la realidad estudiada tiene lugar.

Artículo 2. Tamaño de grupos.

1. El tamaño de los grupos, en función de cada tipo de docencia, se establece en la siguiente tabla. Para determinar el número máximo de grupos autorizados, para cada modalidad docente e idioma, en las asignaturas obligatorias se utilizará el dato de alumnado matriculado en el curso anterior.



Talde motak/ tamainaren arabera/ Tipo de grupos por tamaño	Irakasgaiak motak/ Tipologías Docentes	Taldearen tamaina gehienaz/Tamaño máximo grupo
Talde handiak/ Grupos grandes	Eskola Magistralak (EM)/ Clases Magistrales (M)	100
Tamaina erdikoak/ Grupos medianos	Ikasgelako praktikak (IP) eta Tailer ez-industrialak/ (TA)Prácticas de aula (PA) y talleres no industriales (TA)	50
Talde txikiak/ Grupos pequeños	Mintegiak (M), Laborategiko praktikak (LP), Ordenagailuko praktikak (OP), Tailer industrialak (TAI), Landa-praktikak eta Kirol-praktikak (LP eta KP)/ Seminarios (S), prácticas de laboratorio (PL), prácticas de ordenador (PO), talleres industriales (TAI) y prácticas de campo y deportivas (PCAyD)	25
Talde oso txikiak/ Grupos muy pequeños	Praktika klinikoak (PKL)/ Prácticas clínicas (PCL)	8

3. artikulua. ECTS kredituen balioa ordutan

Europako ECTS kreditu bat 25 lan-orduren baliokidea da; hau da, gai bati loturiko jakintzak, gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko ikasleek erabili beharreko orduak. Lan-ordu hauetan sartzen dira: eskola-orduak (teorikoak eta praktikoak); irakasgaia egunean edukitzeko ikasketa-orduak; mintegiak, lanak, praktikak edo proiektuak egiteko erabilitako orduak; eta azterketak eta ebaluazio-probak prestatu eta egiteko beharrezkoak.

Artículo 3. Equivalencia, en horas, del crédito ECTS.

Se establece que el crédito europeo ECTS equivale a 25 horas de trabajo requeridas por el alumnado para la adquisición de los conocimientos, capacidades y destrezas correspondientes a una materia. En estas horas deberán estar comprendidas las dedicadas a clases lectivas, teóricas o prácticas; las horas de estudio para llevar la asignatura preparada al día; las dedicadas a la realización de seminarios, trabajos, prácticas o proyectos y las exigidas para la preparación y realización de los exámenes y pruebas de evaluación.

4. artikulua. Aurrez aurreko orduak banatzeko moduluak

1. Eskola magistralak mintegiekin orekatzeko erreferentzia-eredu gisa, egokitzen hartzen da honako proportzio hau: 3 edo 4 ordu magistral mintegian erabilitako ordu bakoitzeko.
2. Nolanahi ere, gradu berrien jarraipena egitean, orduak banatzeko beste proposamen batzuk aztertuko dira,

Artículo 4. Módulos de distribución de las horas presenciales

1. Como modelo de referencia para equilibrar la docencia magistral con los seminarios se considera adecuado tender a una proporción de 1 hora de seminarios por cada 3 ó 4 horas magistrales.
2. No obstante, en el seguimiento de los nuevos grados se estudiarán otras propuestas de distribución siempre que

betiere mesedegarri badira irakasgai-, modulu- edo ikasturte-mailan ikaskuntza-metodologia aktiboak bultzatzeko, eta baliabide gehiago eskatzen ez badituzte. Akademia Antolakuntza eta Doktoregoko Batzordeak proposamen hauei baiezkota eman aurretik, aldeko txostenak egin beharko dituzte Kalitate eta Irakaskuntza Berrikuntzako Errektoreordetzak eta Irakasleen Errektoreordetzak.

3. Taldeak GAUR sisteman grabatzeko orduan, soilik hartuko dira kontuan araudi honen 1. artikuluan aipatutako irakaskuntza-motak.

5. artikulua. Prestakuntza-bidean dauden ikertzaileen irakaskuntza-jarduera

Oro har, prestakuntza-bidean dauden ikertzaileak irakaskuntzan aritu ahal izango dira baldin irakasgaiak arduratzen den Saileko Kontseiluaren baimena badute eta prestakuntza-kontratuaren baldintzak urratzen ez badira. Irakaskuntza hau informatika-sisteman grabatuko da, beste irakasle eta ikertzaileen (II) irakaskuntzarekin egiten den bezala.

Hala eta guztiz ere, egoera jakin batzuetan, irakaskuntza-modalitate batzuen behar espezifikoak direla-eta, II irakaskuntza bateratu ahal izango da prestakuntza-bidean dauden ikertzaileen irakaskuntza-lankidetzarekin. Kasu hauetan, ikastegietako zuzendaritzen aldeko txostena beharko da, eta bateratze honen berri eman beharko zaio II Plantillaren Plangintza Zuzendaritzari; gainera, irakats betebeharra esleituko zaio bai irakaslego erregularrari bai prestakuntza-bidean dagoenari, aurrez aurreko irakaskuntza eskaintzen dutenean betiere.

Azken xedapenak

1. Ahalmena ematen zaio UPV/EHUko Akademia Antolakuntza eta Doktoregoko Batzordeari, edo gai honetan eskumena duen estatutu-batzordeari, araudi hau garatuko duten arau osagarriak egiteko.

2. Ahalmena ematen zaio gai honetan ardura

favorezcan la implantación de metodologías activas de aprendizaje en el nivel de asignatura, módulo o curso y no supongan incremento de recursos. La autorización de estas propuestas por parte de la COAD requerirá informe previo del Vicerrectorado Calidad e Innovación Docente y del Vicerrectorado de Profesorado.

3. A efectos de grabación de grupos en el sistema GAUR, únicamente se considerarán los tipos de docencia definidos en el artículo 1 de esta normativa.

Artículo 5. Docencia del Personal Investigador en Formación

Con carácter general el personal investigador en formación podrá asumir docencia siempre que esto haya sido aprobado por el Consejo de Departamento responsable de la asignatura correspondiente y siempre que no se contravengan las condiciones de la convocatoria del contrato de formación. Esta docencia será grabada en el sistema informático al igual que la del resto del PDI.

No obstante lo anterior, en algunas circunstancias, por motivos de las necesidades específicas de algunas modalidades docentes, se podrá complementar la docencia del PDI con la colaboración docente del personal investigador en formación. En estos casos, que deberán ser informados favorablemente por Direcciones de los centros y comunicados a la Dirección de Planificación de Plantilla del PDI, se imputará encargo docente tanto al profesorado regular como al personal en formación siempre que ambos atiendan presencialmente al alumnado.

Disposiciones finales.

1. Se faculta a la Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado de la UPV/EHU (COAD) o comisión estatutaria competente para elaborar normas complementarias que desarrollen la presente normativa.

2. Se faculta a la Vicerrectora o al Vicerrector



duen Errektoreordeari prozedura eta egutegia ezartzeko, batzorde eskumendunekin eta II Plantillaren Plangintza Zuzendaritzarekin lankidetzan. Gainera, araudi honen aplikazioan sor litezkeen auziak interpretatu eta ebatzi beharko ditu.

3. Araudi honetatik edo berau garatzen duenetik kanpo gelditzen diren gaiak ebazteko, indarrean dagoen legedia erabiliko da.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetu egiten dira araudi honetan ezarritakoaren aurka dauden xedapen guztiak

responsable de esta gestión para establecer el procedimiento y el calendario, con la colaboración de las comisiones competentes y de la Dirección de Planificación de Plantilla del PDI. Así mismo deberá interpretar y resolver cuantas cuestiones se planteen en la aplicación de esta normativa.

3. De los aspectos no previstos en esta normativa o en aquella que la desarrolle, se atenderá a lo establecido en la legislación vigente.

Disposición derogatoria.

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones que se opongan a lo previsto en la presente normativa.